

Hazteko, hazien hormonak



Jakoba Errekondo
jakoba@bizibartztea.eus

Landare bati kendutako puska batetik berri bat sortzeko hormonak erabiltzea ohikoa da. Landarearen aldaxkari edo hostoari itsasten laguntzeko, errotzeko, urgazle egokiak dira hormonak, batez ere sustraiak ez ematen egoskorrak direnetan. Landare batzuen puskek erraz ematen dituzte sustraiak, uretan jartze hutsa nahikoa da. Beste batzuk, berriz, temoso-temoso jarri eta sustrairik ez luzatzeko setan gogor lotzen dira. Horiekin ia nahitaezkoa da hormonak baliatzea.

Hormonak artifizialak edo naturalak izan daitezke. Naturalak zerorrek molda ditzakezu. Haziekin, adibidez. Hazi guztiek bi zati dituzte: ernamuina eta energia erreserba. Landare berria sortzeko, hazia hozitu egin behar da. Metatuta dagoen energia dantzatu, eta horrela akuilatuko da ernamuina, baldin eta sustraia eta kimua biak emango baditu. Energiaren dantza horren doinua hormonon orkestrak joko du. Musika hori abiatzeko, haziak hiru baldintza eskatzen ditu: ura, tenperatura epela eta ilunpea. Nahi bada zuzenean uretan sartuta, nahi bada ur-asetutako zapi edo paper batean bilduta, baina busti ha-



ASHLEY CAMSELL

ziak, eta, toki epel eta ilun batean, erraz ernatuko dira. Kimua agertzen denean, bixtan da, hormonon musika ageri asko ikusiko duzu. Orduan haziak oso-osorik zanpa-zanpa birrintu, zehatu. Uretan bazeuden, ur hartantxe nahasi; bestela, ura erantsi eta ondo-ondo eragin. Irazi eta bereizi: ura eta hazi-kondarrak. Biak, zein baino zein, hormonaz gainezka egongo dira.

Aldaxkak ur hormonadunetan sartu, eta eduki egun betez; ondoren, zeharrraldu loreontzian, muintegian, baratzetan... Aldaxkan sustraiak azaltzen

dituen arte ere eduki daiteke uretan. Ondoren, landatutakoan ureztatzeko ere ur hori bera erabiliz gero aise demonio itsatsi eta indartuko da. Demonio horri bidea errazteko, eman irazitakoan bereizi ditugun hazi-kondarrak aldaxka landatuko dugun lurrari.

Zein hazirekin sortu hormonak? Le-kale jendea oso egokia da: dilista (*Lens culinaris*), txitxirioa (*Cicer arietinum*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*)... Baina baita ere artoa (*Zea mays*), gariak (*Triticum spp*), oloa (*Avena sativa*), hirustak (*Trifolium spp*)... ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Eup Jakoba. Errekondoko kanaberak bota nahi ditut parda-hesolak egiteko; ilbeheran, noski, baina garairik onena noiz? Ondo segi.

Tomatezalea (Ezkio)

Eup. Beti esan izan da kanabera (*Arundo donax*) botatzeko

urtarrila eta otsaileko ilbeherak direla onenak. Hala ere, nire iritziz, otsaileko ilgora da egokiena. Neguan izerdi gutxiago dabil landarearen kanaberan barrena eta hori beraren iraupenerako ona da, eta pipiek eta antzekoek zailago joko dute. Ilbeherak kanaberaren zuntza are lehorrago egotea dakar, gainera.

Ez dut gogoan nork eta non, baina aspaldi, baten batek esan zidan berak kanabera otsaileko ilgoran mozteko ohitura zuela, etxean ikasia... Nire iritziz arrazoi zuen, eta pardatarako edo hesolatarako erabiltzeko hobea da ilgorakoa: malguagoa, pitzatzen zailagoa, lantzeko errazagoa izango dela iruditzen zait. Kanabera ondo jasoz gero, luze iraungo du: aterpean, ilunpean eta toki lehor eta freskoan.

Ondo izan!